





LH-6. MAILA
4. UNITATE DIDAKTIKOA
"Ez naiz bakarrik bizi"



EZ NAIZ BAKARRIK BIZI-2: LAGUNAK, ALTXORRA, SAREA ETA BABESA

Idatzi zure izena:

Lagunak altxor handia dira. Maite gaituzte eta maite ditugu. Hona LAGUN ONAK identifikatzeko IRIZPIDE POSIBLE batzuk:

 	1.Nire adinekoa izatea	2.Nire alturakoa izatea
	3.Nire herrikoa izatea	4.Nire sexukoa izatea
	5.Ikusteak bakarrik poza ematea	6.Nik nahi dudan bezalakoa izatea
	7.Beti nirekin egon nahi izatea	8.Elkarrekin ondo pasatzea
	9.Nirekin egoteko denbora izatea	10.Niri errespetuz hitz egitea
	11.Nire zaletasun berberak izatea	12.Elkarrekin barre egitea
	13.Nire eskolakoa izatea	14.Niri garrasi ez egitea
	15.Nigan konfiantza edukitzea	16.Kirolari ona izatea
	17.Jeloskorra ez izatea	18.Beste lagunekin ondo eramatea
	19.Elkarri gauzak kontatzea	20.Elkarrekin planak egitea

1. - Idatzi ZUK lagun onak antzemateko erabiltzen dituzun irizpideen zenbakiak:

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

2. - Idatzi ZUK lagun onak antzemateko erabiltzen dituzun beste irizpide batzuk:

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Bizitzaren esparruetan maite gaituzten pertsonak GURE MAITASUN SAREA osatzen dute.

3. - Osatu zure maitasun sarea. Idatzi esparru hauetan maite zaituzten pertsonen izenak:

FAMILIA ETXEA	LANA ESKOLA	GIZARTEA INGURUA

→ Zenbat eta maitasun sare handiagoa, orduan eta bizitza hobetagoa.

→ Lagun sarea maitasun, ongizate eta babes sarea da. Beharrezkoa da.